



Iturria: *Teatro osoa euzkeraz (I)*, Antonio Labayen.  
La Gran Enciclopedia Vasca, 1976.

Klasikoen Gordailuan:  
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/L/LabaienMuga.htm>

## MUGA

**Antonio Maria Labaien**

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

M<sup>me</sup> DUTOURNIER-i.

Egun batez Mugatik igesi nentorrela ezagutu nuen SERORAENEA-ko Etxekandre bihotz zabalari, gaur esker on eta adiskidetasunez opa diot ene baitha-ko «puska» xume hau.

Ez ahal dute muguzainek atzemainen.

Egilleak

## MUGA

### Irri antzerkia (josteta) ekitaldi bietan

«Ah, mon Dieu, Français ou Espagnol, moi, ça m'est égal. J'aime autant l'un que l'autre: je suis Basque comme toi, comme nous sommes, tous; le reste je m'en fixe».

(«Ramuntxo» de Pierre Loti).

## DRAMATIS PERSONAE

**IÑAXI:** Etxeko anderea.

**KARABINERO, MUGAIZAINAK...**

**MARIXUME:** Alaba.

**MIXEL:** Etxeko Jauna.

**BATIXTA:** Mugalari nagusi: kontrabandista.

**KOXE JOAN:** Mutil Marixumeren senargaia.

**ERREMUNDEGI:** Sarako auzapeza.

**ARANTXIPI:** Zugarramurdiko endorea.



## LEHEN EKITALDIA

*Mendito baten gainean Galtxagorri benta. Muga-mugan, Sara ta Zugarramurdi artean. Etxea Eskual-Herriaren bihotzean dagolarik aintzin atea Espainian du; gibelaldea berriz Frantzian.*

*Irudian Galtxagorri ager bedi lau aritz aundiren erdian. Ate nagusia ta sukalde leioa zabalik ditu.*

*Udako egun eder batez. Goiza da. Giroa «elizanburutiarra»...*

## LENENGO AGERRALDIA

*Iñaxi ta Batixta*

*(Iñaxi etxe lanak utzirik atadian dago norbaiten begira. Une artantxe Batixta etortzen da: izerditan, eskuan makila, maripulisa bizkarrean ezarria):*

**IÑAXI:** To, elduki? Batixta zu zinen? Oren tzarrean zatoz. Eta bertzeak?

**BATIXTA:** No. Zu egoki? Eta zertako da oren tzarra? Emen gire guztiok. Beti egiten diguzu begitarte on, aterbe ta bazkaria eskeñiaz. Zer gertatzen da egun? Inoiz baino unatuago ta gosetu-xeago. Mendian itsuski ibiliak gaituzu. Eta zu noren begira zaude ba?

**IÑAXI:** (*Larri*) Gaisoak. Beharko duzue geiago ibil oraino. Bazoazi iges emendik. Laister gainera. Fite. Instantean unat etortzekoak baitire mugazainak Sarako jaun auzapeza buru dutela; ta okerreana dena, Arantxipi, Zugarramurdiko Endorea karabineroakin.

**BATIXTA:** (*Arriturik*) E?

**IÑAXI:** Jende hekien adiskide ez ziranez geroz bazoazke bertze nonbait aterbe ta jan bila. Atzematen al zaitue bertzenaz. Eta gu zurekin.

**BATIXTA:** Karabineroak? Nun dira urde zikinak? Ez digute bizitzen uzten. Al...

**IÑAXI:** Laister emen dirala uste dut.. Baita ezpada Marixume gain ortarat igorria dut nortzuek datozen ikusterat.

**BATIXTA:** Zu ez zaitue ustegabeen ez mugazain ta ez karabineroek izi arazten. Bideak zainduagatik, ni zure etxerat oartzeko eldu naiz ordea.

**IÑAXI:** Bidexkari lotuz, bai. Zu ere mugatiarra izaki.

**BATIXTA:** Errazu ba egi osoa. Hunela ama alabak bideen begira egoteko, zerbait gertatzen da emen. Zertarako etorri behar dute, bertzenaz, elgarrekin, mugazain, auzapez, karabinero eta gaineratekoak?

**IÑAXI:** Bai baitire beti zenbait ardi, zikiro eta behor galduak erri bietarik, eta badakizu kantrabando istorioren bat ere ba, tartean, bertze zenbait bezala.

**BATIXTA:** Ez erran, bai erran... anitz adituz dela anitz ikasten.

**IÑAXI:** Itzulia ongi egin duzue?

**BATIXTA:** Arras ongi. Zure jauna emen da puska pulitekin. Guzientzat irabazia izanen da. Egon lasai. Gose ta egarri naiz.

**IÑAXI:** Ori behar dugu ba. (*Posik*) Jarri zaite jarri. Xorta bat arno ematen al dizut, beldur naiz baino.

**BATIXTA:** Zaude lotsik gabe. Dezagun jan ta edan, azken ilak arauz zorrak ordainduko ditu. (*Esertzen da esku gibelaz izerdia idortuaz*).

**IÑAXI:** (*Etxe barnetik arno, gasna ta ogjaz itzulirik eta orma kontrako alkian utzirik*) Artu ba Batixta. Nik uste mugazainak ez direla bat batean etortze ahal.

**BATIXTA:** Saratarrak badugu beti astia. Izanen ahal dugu iges egiteko (*Edanez*). Ez nuke maite alimale orien eskuetan erortzea.

**IÑAXI:** Eta ustegabeen balin badatoz norat jo behar duzu? Ez sar, otoi, gure etxean. Galduak gintazke.

**BATIXTA:** Karabineroak badire Prainziako aldean gordetzen ahal naiz, eta aitzitik, mugazainak badire Espainian.

**IÑAXI:** Eta denak batera badatoz?

**BATIXTA:** (*Bertze xorta bat edanez*) E? Ba, zuen etxe giblean badituzue iratz multsoak. Bada or ni kokatzeko ainbat leku. An oberenik muga-mugan.

**IÑAXI:** Zer nolako irriskuetan zabilzan, ibil. Karabineroak ez badire mugazainak; eta zu biekin gaizki.

**BATIXTA:** Ardura guti. Batzuentzat desertore omen; bertzeentzat berriz muga lapur. Berak ohoinak, guri ebatsi bait digute Eskual-Herrian menditik mendirat librok ibiltzeko eskua.

**IÑAXI:** Gaisoa. Mintzaira ori ez dute arrotzek konprenitzen, eta gizon oriek ager badire, obe duzu lehenbaitlen igesi gan.



**BATIXTA:** Segurki. (*Jan edanean jarraitzen dun bizkitartean isil unetxoa*).

**IÑAXI:** (*Larritzen asia; zakurrek eiza bezala mugazainak urrundik usainduaz*).  
Ez dakit ene jauna zer ari den egiten agertu gabe. Berantetsirik nago. Emen behar zuen aspaldixko.

**BATIXTA:** Zama andiskoa baitu, astia behar unat etortzeko. Nolanai laister duzu emen.

**IÑAXI:** Ez nuke nahi etxeok ez direnak ikus dezaten lan ortan. Gutiago ere gogo nuke. Zugarramurdiko eta Sarako jaunak emen daudelarik etortzea... Ahalkegarri litake.

**BATIXTA:** Ez izan lotsik, alaba ez duzu igorri ba bideak begira ditzan? Kasu egiterat?

**IÑAXI:** Itzuli behar zuen onezkero. Solasean ariko da or nunbait... ni bakarrik utzirik etxe lanen egiten.

**BATIXTA:** Zer ba? Neskatxek bozkario zerbait behar dute. Adiskidea or baitu gainera.

**IÑAXI:** (*Addi belarria emanaz*). Adiskidea? Adiskideak ez ezik ez dakit etsaiak ez ote datozen? Entzuten duzu?

**BATIXTA:** Ba. Jendea da.

**IÑAXI:** Ezkuta zaitetz bataezpada. (*Bide alderat ainzinaturik*), (*Batixtari ozenki*) Marixume ta Zugarramurdiarrak dire. Bazoazke.

**BATIXTA:** (*Lasa*) Orduan karabineroak. Banoa Frantziarat (*Abiatirik*) Sarri artio.

**IÑAXI:** Ez gan bide ortarik, zeren mugazainak kausitzen ahal dituzu.

**BATIXTA:** (*Itzuliaz*) Ez uste, ez dut ibiltzeko gogo aundirik. Etxe giblean gordetzen ahal nain ta lo egin iratz tartean.

**IÑAXI:** (*Etxe gibeluruntz bultz eginaz*) Ori oberenik eta ez atzarri nik deitzen zaitudan artio. (*Iñaxi unetxo battez etxe barnerat sartzen da arno, ontzi, gasna ta ogia berakin eramanik*).

## BIGARREN AGERRALDIA

*Iñaxi, Marixume, A rantxipi ta bi Karabinero*

**MARIXUME:** (*Eun bat metra aintzina etorriaz*) Ama. Zugarramurdiko jaun auzapeza ta karabineroak ditugu emen.

**IÑAXI:** (*Atadian agertuz*) Obe zendun lehentxeago etorri. Eta gure gizonak nun dire?

**MARIXUME:** Ez datoz bide ortarik.

**IÑAXI:** Bertzeari kasu egin ba. Eman or.

**MARIXUME:** Ez kezki izan ama. Begirutzen al ditut ongi bideak.

**IÑAXI:** Zaude ixil. Arantxipi jauna eldu bait zaigu (*Ezpainen irria duela ongi etorria egiterat joanaz*).

**ARANTXIPI:** (*Karabineroak gibelxeago utzirik etxeokanderea agurtzerat urbiltzen da*) Agur andre. Ongi zaitze guziok? (*Eskua emanaz*).

**IÑAXI:** Arras ongi, mila esker: eta zuek?

**ARANTXIPI:** Zuk ikus. Gure adinean gain untarat igotzeko behar du ongi izan.

**IÑAXI:** Ez arrangura, ez zira xaharra oraino.

**ARANTXIPI:** Sobera, Iñaxi. Gureak egin du. Ez dire Sarako auzapeza ta lagunak eldu?

**IÑAXI:** Badakizu Saratarrak astia saltzen dutela. Baina, jarri zaitte, jarri. Unela obekiago itxoegiten al duzu ta pausatzen ziran bizkitartean ogi gasna arno pitarekin artuko duzu. Eta bai zure lagunak ere. Serbi zaiezu, Marixume.

**ARANTXIPI:** Bai, gogoz, egarri bait naiz. (*Jarriaz, karabineroeri*) Vengan ustedes a tomar un trago que ya tendrán sed.

**I KARABINEROA:** (*Urbilduaz*) Se agradece, señor alcalde; y a ud señora (*Etxekoandrearengatik*).

**II KARABINEROA:** Muy buenas, patrona. (*Marixume ogi, gasna, ta arnoaz sartzen da. Iñaxi ta Arantxipi alde batean gelditzen, karabineroak bertze bazterrean jartzen diralarik*).

**MARIXUME:** (*Arnoa serbituz geroz*) Gasna emen duzue, nagusiak. (*Ulertzen ez diotela ikusirik*) Du fromage, messieurs.

**II KARABINEROA:** Merci «mademuasel». (*Lagunari*) Buena moza.

**I KARABINEROA:** Tú que sabes francés dila algo, a ver si la camelas.

**II KARABINEROA:** No ves que estas de la frontera hablan el «dialezto»?

**I KARABINEROA:** No. Te vamos a traer a ti una de Paris de Francia. Pues no te pide nada el cuerpo. Ahi la tienes.

**II KARABINEROA:** Déjala, hombre, y bebamos este vinillo que entra bien.

**I KARABINEROA:** Como que tenemos el gaznate seco.

**ARANTXIPI:** (*Karabineroengana urbilduaz*) Parece que las de Sara van a tardar aún.

**I KARABINEROA:** Eso, siempre.

**ARANTXIPI:** Entonces es mejor que suban ustedes antes. Yo iré con ellos luego.



**I KARABINEROA:** A sus órdenes, señor alcalde, (*Jeikiatz*) Pues nada, subiremos al cerco y nos guardaremos en el puesto, por si acaso.

**II KARABINEROA:** (*Igturik*) Ya tengo gana de echar el guante a uno de esos contrabandistas. Sobre todo al Batista ese.

**I KARABINEROA:** En marcha, Gutierrez; ya caerá.

**II KARABINEROA:** Yo ya estoy dispuesto.

**I KARABINEROA:** (*Abiturik*) Hasta luego.

**ARANTXIPI:** Sí, pronto nos tienen allá.

**II KARABINEROA:** (*Doalarik*) Bonjour.

**IÑAXI ta MARIXUME:** Agur jaunak. (*Karabineroak badoaz. Marixumek ogi, gasna, arno ontzi, azpil eta bertze puskak etxera bitza*).

## IRUGARREN AGERRALDIA

*Iñaxi, Marixume ta Arantxipi*

**IÑAXI:** (*Larrituxe*) Bainan norat igorri dituzu karabinero oriek?

**ARANTXIPI:** Gaineko leporat, an egon ditezen gu gaten garen artio. Emen gaizki bait zeuden.

**IÑAXI:** A, gaisoa. Ederra egin duzu. Nere jauna segur naiz atzematen al dute, arestian bide ortarik etortzekoa baita zenbeit puskekin.

**IÑAXI:** Galduak gira.

**ARANTXIPI:** Mixelek badaki zer bide ta bideskatik ibil. Ez du lehen aldia izanen nik uste.

**IÑAXI:** Emen behar zuen aspaldisko, ordea. Ni etxean berriz istutasun denak jasaiten. Obe ginuke zergak ordaindu hunela ibili baino.

**ARANTXIPI:** Laketurik zaude ontarat Iñaxi. Zer nahi duzu. Mugan bizi bait gira.

**IÑAXI:** (*Lasaiago*) Hunela da ba. (*Alabari*) Marixume; kasu egiozu sua ta eltzekariari, eta karabineroak gan direlarik erraiozu etxe gibelean dagon Batixtari ager dadiela.

**MARIXUME:** Bai ama.

**ARANTXIPI:** Aranberriko Batixta emen al dugu? aren bila dabilta ba karabinero. Orain ere arek sortu bait ditu kalapita guziak

erri bien artean. Artalde mendiz aldatua du baimenik gabe; behorak naiz zangoak egurrekin izan mugaz bertalde eramaiten ditu. Berdin dabil, bei, txerri, ta bertze aziendekin, ta jakina, buruzagiek, bahitzeko manua eman digute.

**IÑAXI:** Karabineroak usaindu orduko gorde da; ez dute erraz atzemanen.

**ARANTXIPI:** Nik ez diot gaitzik opa, Batixta nere aspaldiko laguna baita; eta maite dut. Alabainan Zugarramurdiko endore naizan aldetik ixtutasun nardagarrian emanen nau. Kontrabando zenbeit egitea, puska batto ala bertze astero bederen etxeratzea ez da obena andi, naski, bainan...

**IÑAXI:** Ori bera erraten diot nik ere.

**ARANTXIPI:** Gizon arditu ta ausartegia da. Eta aren kariaz erri biek asarre ta auzietan dabilta. Ortakotz agindariak jarraiki zaizkio: Espainiarat ezin gan da, eta Frantzian ez da sartzen al. Beraz...

**IÑAXI:** Ez da sobera larritzen. Or dago, etzinda, loak arturik iratze multso artean. Ori omen bere eskualdea..

**MARIXUME:** (*Etxetik ateratzen da pegarra buru ginean dualarik*) Atzarria da Batixta; laister duzue emen. Ni urketarat noa ama, ta sara-tarrak oartzen ditudalarik osegingo dautzut.

**IÑAXI:** Aguro ibil ba. Bazkari prestatzeko sukaldean ba-bait duzu lan.

**MARIXUME:** Bai, ama. (*Aienatuaz*).

**ARANTXIPI:** Alaba prestu ta pampina duzu Iñaxi.

**IÑAXI:** Hunela da jauna. Ez da alaba dudalaketan bainan «erle bat da etxe barnean gaiso maitea; eta baratzean den lore pulitena».

**ARANTXIPI:** Elizanbururen kanta arabera (*Abestuaz*).  
«Errege baldin banitz, a, zer erregina».

**IÑAXI:** Errango nuke. (*Irriz*) Errege behar.

**ARANTXIPI:** Haatik senargeia baduala jakin dut, eta ez nolanaikoa, ederki hautatua baizik: Koxejuan, mutil azkar, zalhu ta prestua.

**IÑAXI:** Kontent gare ba. Gizon gazte bat behar ginuen etxean eta Jainkoari esker ezin ohea eltzen zauku. (*Oroituz*) Semeen orde zerbait behar; Ain urrun daude gaisoak. Kalifornian.

**ARANTXIPI:** Baduzu berririk? Ongi izanen dire naski?

**IÑAXI:** Arras ongi omen. Oraintsu, orai letra bat igorri dauku gazteenak. Aziendeentzat urte ona dutela dio.

**ARANTXIPI:** Orduan laister emen ditugu aberasturik aitama loriatzerat.



**IÑAXI:** Zaharrena ezkondua danetz eta aurrekin ez da errez izanen. Ez dugu aspaldi aren berririk. Bainan gaztea bai, espero dut urte gutiren buruan etxean ikustea. Erran bai zidan partitzaerakoan: Ama, behorra karrosari lotuta erriz-erri kurritzeko aina diru irabazten dutanean orduantxe itzultzen al naiz Ameriketatik.

**ARANTXIPI:** Behorra ta karrosan ezik automobilean eltzen al zaizu, gutiena uste duzunean.

**IÑAXI:** Eltzekotan, beti eginen diogu ongi etorria, naiz oinez etorri eta gure etxe zaharrean beti izanen du leku.

**ARANTXIPI:** Ez zuen berak ahantziko kopla maite ura: *(Erdika oroituaz):*  
«Naiz ez den gaztelua  
Maite dut, nik sorlekua  
Aiten-aitek autatua».

## LAUGARREN AGERRALDIA

### *Lehengak eta Batixta*

**BATIXTA:** *(Agertuaz)* Agur, jaun-andre. Emen aldarte oneko jendea dagoala dirudi. Ala obe.

**IÑAXI:** Aldi gutirako. Gure pozak ez du irauten.

**ARANTXIPI:** A, Batixta; asarrea ere batzuetan soinuaz eta kantuz iraungi arazten baita.

**BATIXTA:** Inoiz lan pita bat eman ohi dizuet bainan... Ez zira nerekin asarre izanen ba, jaun auzapeza.

**ARANTXIPI:** Norekin ba? Orain ere auzi gaitza sortu ezpadiguzue. Ez dut dudarik tartean izanen zirela. Bat da kontrabando xehea...

**IÑAXI:** Ogi, arno, gatz, tota apur bat eta hunelako puskak etxeratzea...

**ARANTXIPI:** Jakina. Eta zuek egin bidegabekeriak bertze. Zer nahi gauza: arnoa zaharagika; aziendek andanaka; ots; tabakoa ausarki.

**IÑAXI:** Zer ba obe da pipakada batto ekartzea baino.

**ARANTXIPI:** Ikusten al duzu ikus. Karabinero ta mugazainek negurri latzgarriak artzerat doaz eta gaizki ibili beharrak zerate.

**BATIXTA:** Atzematen bagaitue bai. Badakigu hori. Ortarakotz ez nuke aien eskuetan erori nahi. Haatik karabineroak urbilduxe

direnean Frantziarat iragaiten naiz; eta guarda frantzesak badire Espainiarat: Enetzat orobat baita. Eskual-Herria.

**IÑAXI:** Nahi duenak berra nahi duena. Hunela solasean aritzeko eta nehork ikus ez zaitzaten obe duzue etxe barnerat sar. Lasago egoiten al zaizte ta nik sukaldeari begiratzen al diot. Antola behar baitut bazkaria. *(Abiturik).*

**ARANTXIPI:** Itzaren ederra. Hortan ez dugu gibelarazteko gogorik. Bagoazi barnerat.

**BATIXTA:** Ni ere etxeakoandrea arabera nago.

**ARANTXIPI:** *(Sartuaz)* Batixta ene aholkua entzun zazu, ez bada berant: Sarako auzapez Erremundegibehere jaunak derasanez jabetzen ahal gera lehenik. Nola nai den ez dakit ongi ateratzen ote ziran auzi oritarik. *(Doaz)*

## BORTZGARREN AGERRALDIA

### *Marixume ta Mugazainak. Erremundegi*

#### *(Marixume ta Erremundegi lehenik Bertzeak gibelxeago).*

**MARIXUME:** *(Pegarra urez gainezka buruan dualarik).* Zugarramurdiarrak etorriak dire ba. Arantxiipi jauna emen gelditua da, etxe barnean izainen da, eta karabineroak gaineko leporat igorriak ditu, an itxoin dezaten.

**ERREMUNDEGI:** Nik gauza bera egin beharko dut. Goiz eldu dire haatik zugarramurdiarrak.

**MARIXUME:** Berritz errainen dute saratarrek astia badutela, jaun auzapeza.

**ERREMUNDEGI:** Aspaldiko omena dugu. Hunela obe, alare sasoz el bait gera. Urketatik zatozenez ur freskoagorik ez dugu sekulan erdietsen al. Gogotik jastatzen al dut, sapa dago ta zintzurra busti ta egarria kentzeko maitatzenago bai dut mendi iturriko ur xorta bat bertze edozein edari baino.

**MARIXUME:** Pozik emainen dizut, hunen nago galdez. Fresko freskoa. Zaude, beiraren bila noa. *(Etxerat sar aintzina mugazainei mintzaturik)* Jaun oriek bertze zerbait gogoko izanen dutela nik uste *(Doalarik).*



**I MUGAZAINA:** Ez da galdegin beharrik gazte (*Ojukatuaz*)

«Zerik othe den nik jakin nahi»

**II MUGAZAINA:** (*Lagunari*) Tu chantes, toi?

**I MUGAZAINA:** Tiens,, elle nous demande si nous voulons bien boire un coup.

**II MUGAZAINA:** C'est pas de refus, bien sûr; on a le gosier sec.

**ERREMUNDEGI:** Mais elle vous offre de l'eau. C'est ce qui a de mieux pour rafraîchir et ôter la soif.

**II MUGAZAINA:** Vous plaisantez, monsieur le maire. Pour l'eau nous en avons assez avec la pluie qui tombe tout le temps dans ce pays. Je préfère l'arnea...

**I MUGAZAINA:** Arnea, arnea, naparra gainera. Il connaît déjà l'article aussi bien que le tarif d'arancel.

**ERREMUNDEGI:** Et même il a appris le mot basque. C'est que, monsieur le garde, le vin est périlleux. On ne sait pas s'il est de contrebande.

**II MUGAZAINA:** Vous savez, au bon vin il ne faut jamais lui demander ses papiers. Il y a des choses bien plus importantes qu'on devrait plutôt surveiller et poursuivre et ne pas nous laisser tromper par ces types.

**ERREMUNDEGI:** Certainement. Pour ça on devrait mieux garder tous les chemins de montagne. Baduk lan.

**II MUGAZAINA:** Ah, si on pouvait tirer sur ces brigands avec un fusil comme font les «carabineros» ça serait une autre histoire, je vous dis.

**I MUGAZAINA:** (*Marixume eltzen dela ikusiaz*) Laisse de côté ces soucis. Ne t'inquiète pas. Ça ne vaut pas la peine. Voici Marixume qui arrive, et à ce qu'on voit on va casser la croûte. (*Marixumeri*) Utzi emen, Marixume. Gasna ogi ta txingarra ere badugu, arnea ezik.

**MARIXUME:** Zer ba? arnea jaun andi baita laguntzalle gaberik. (*Ontzia ta, puskak mai gainean uzten dituala, mugazaineri*). Jarri zuek emen. (*Erremundegiri*) Emen dator ama ur pitxarrarekin, jaun auzapeza.

**ERREMUNDEGI:** Ez da presarik, millesker.

**MARIXUME:** Lehen etortzen al zen. Ain lanpeturik dago supazterrean finkatuta. Beharrik... Aspaldiko lagun xaharrak gira zure ama ta ni.

## SEIGARREN AGERRALDIA

*Lehengok eta Iñaxi*

**IÑAXI:** (*Agertuaz*) Agur, jaunak. (*Erremundegiri*) Ongi etorri jaun auzapeza. Etxean ontsa zaizte beti?

**ERREMUNDEGI:** Badugu osasuna Iñaxi, eskermilla anitz, eta zuek?

**IÑAXI:** Gu ere azkar gaude Jainkoari esker. Ezta gutti. (*Pitxar bat ur, ontzia azpilla Erremundegiri aintzinean ezarriaz*) Emen duzu ur frexkoa. Alabak erran bait nau egarrituxea eldua zinela.

**ERREMUNDEGI:** Hunela da ba (*Edanez*) Ederki sartzen da. Izardituaz geroz ez da au ainbatekorik.

**IÑAXI:** Bada ortarik ausarki, iturria idortu deino. Ez da kario. Gogo baduzu geiago edan? Arno ala sagarnotarik?

**ERREMUNDEGI:** Aski dut oraikotz. Geroxeago. Ez da geiegi edatea komeni.

**IÑAXI:** Nahi duzun bezala. (*Mugazainai begiratuaz*) Badakizu Zugarramurdiarrak emen ditugula?

**ERREMUNDEGI:** Badakit ba.

**IÑAXI:** Hekien antzinean ezin gira mintzo altoki bainan... or barnean daude Aranttipi jauna eta... (*Isilago*) Batixta.

**ERREMUNDEGI:** Gizon orrek galdu behar gaitu. Atxeman dezaten al dabil edo zer?

**IÑAXI:** Ori erraten diot nik: karabineroak inguruan, mugazainak urbil, buruzagiak etxe barnean eta bera emen geldi. Etxetiarren-tako ere ertsura gaitza baita.

**ERREMUNDEGI:** Haatik mugazainak leenbaitlen igortzerat noa, bertzenaz...

**IÑAXI:** Doazila ba Arretxolako bizkarrerat. Hori ontsa. Karabineroak an baitire aspaldixko. (*Mintzatzen jarrai bezate bertze ertzean Marixume eta mugazainak diardurlarik*).

**II MUGAZAINA:** Ardi gasna au arras ona da. Etxean egin duzue?

**MARIXUME:** Bai jauna, ba. Jan zazue geiago, ez da gasnik falta gure etxean.

**I MUGAZAINA:** (*Puska bat lagunari eskeniaz*). C'est pas mal ce petit fromage. En veux-tu davantage?

**II MUGAZAINA:** C'est pas «méchant», je l'accepte. On ne mange pas du pareil tous les jours, même chez nous en Auvergne où il y a du bon fromage et des belles filles.



**I MUGAZAINA:** (*Irriz*). Les Auvergnates ne valent pas cette Basquaise.

**II MUGAZAINA:** Pour ça, c'est question de goût, tu sais.

**I MUGAZAINA:** Atsegin zaizu gaskoin bau, Marixume?

**MARIXUME:** Ez dut orren beharrik, onetako aina bait baitut emen.

**II MUGAZAINA:** (*Marixumeri begretuaz*). Qu'est-ce que vous débitez?

**I MUGAZAINA:** Elle dit qu'elle est contente de son fiancé.

**II MUGAZAINA:** Mais tant mieux. Nous allons boire à leur santé. (*Edanez*).

A la vôtre.

**ERREMUNDEGI:** (*Mugazainei*) Pausatu bazaizte bideari berriz lotzeko sasoina da.

**ERREMUNDEGI:** (*Jarrai*) Karabineroak Arretxolako bizkarrean dauzkagu zai.

**I MUGAZAINA:** Azken tragoa egiten ari giren jaun auzapeza. Bagoazi. (*Jekiaz*) (*Lagunari*). Ecoute. On va partir puisque les carabineiros nous attendent au col.

**II MUGAZAINA:** En marche donc. (*Zutiturik*). Il ne faut pas que les Français attendent. La ponctualité est la plus nécessaire des politesses; une vertu militaire (*Doalarik*). Allons-y.

**I MUGAZAINA:** Et la gratitude la première de toutes... Pour ça n'oublions pas de remercier pour le petit déjeuner qu'on nous a offert dans cette maison. Milleaker anitz, etxeakoak. Sarri artio.

**IÑAXI:** Aipatzea ere. Ez da fitxik. Bazoazi trankil.

**II MUGAZAINA:** Ça bien entendu nos remerciements, mesdames. (*Auzapezari*) Au revoir, monsieur.

**ERREMUNDEGI:** A tout à l'heure, j'irai vous rencontrer tout de suite.

**I MUGAZAINA:** Emen geldi nahi badu ere eginen dugu itzulia. (*Abiatuaz*).

**ERREMUNDEGI:** Gerora ikusi behar...

**IÑAXI:** Etorkizuna ez baita gure.

**MARIXUME:** Agur jaunak (*Doaz mugazainak*):

## ZAZPIGARREN AGERRALDIA

*Iñaxi, Marixume eta Errenamdegí*

**IÑAXI:** Abitu direnean ez naiz asarre. Ezpadituzte haatik bide hekitan gure gizonak kausitzen. Ez zuen bart arratsean pusken bila ateratu behar egun zer zen jakinik.

**ERREMUNDEGI:** Hortarat usatuak daude. Zer nauzu laister itzultzen al dire.

**IÑAXI:** Aspaldixko behar zuten emen. Bizkitartean Batixta agertu da gure Mixel nunbeit galdurik utzirik. Hori egiten du orrek. Bera etor irabaziak beretako ta mutilak mendirako.

**ERREMUNDEGI:** Ez dire urrun izanen. Geiegi maite bait ditu mutilak eta puskak hunela nulanai galtzen uzteko. Esku zabal da ta bere burua bezenbat maite du bertzeena.

**MARIXUME:** Ama, sobera ezagutzen duzu Batixta, leial jokutzen duela jakiteko.

**IÑAXI:** (*Urduri*). Zu zaude ixilik, baduzu lan etxe atadi au txukuntzen. Gainera lur-sagar batzuek oraino zuri beharrak dituzu, eta baratzetik txilar batzuek atzematen. Eta... bidenabar erran zaiezu barnekoei mugazainak aina dirala.

**MARIXUME:** Bai, ama. Baina ez egon kezketan. Ez alferretan naigabetu. Guzia antolatzen al da garaiz. (*Bonbil, azpilgasna ta abar bernerat bitza*).

**ERREMUNDEGI:** Hunelako alabaz baduzu laguntza ederrik Iñaxi. Pausa gaitzke.

**IÑAXI:** Ez uste, badago denontzako lan: sukaldean dela, garbiketan baratzean sorroan. Egia aitortu behar dizut jaun auzapeza. Kontrabandoaren kariaz, gure gizonen estakuru, mestakuru etxe lan larrienak doi doi egiten dituztela. Orobat emen eta beste Sarako bordetan. Eta sos batzuek irabazteagatik mendia kurrituaz, irrixku artean, urrats latzgarrietan, zenbait ez ote ditugu galtzen gure eremuak behar bezela ez artatuz.

**ERREMUNDEGI:** Hori bera erraten ari nauzu aspaldian eta ez naute aintzakotzat artzen eta damurik mendia ari da laborantza gaintitzen othe ta sasiz. Nik ez dakit kontrabandisten gorde leku ala...

**IÑAXI:** Zuzen mintzatzen zira, onela diot nik ere ene gogoari bainan bertalde ain mozkin urria ematen du lurrak eta lana ain da gogorra, zerbeit behar gure bizia arintzeko eta ustegabeen sos batzuek irabazteko.

**ERREMUNDEGI:** Kisua ta ongarrria obe litzake lurrarentzako kontrabandoa baino.

**IÑAXI:** Hau ez bait dugu nagusiekin erdibana behar. Ezagun da ez zirela maister. Bakoitzak daki nula emendatu etxea. Nere jauna





ager baledi beiak bazkatzera igortzen al nuke, lehenik eta gero...

**ERREMUNDEGI:** Hori ere ez. Ez zazu leher araz senarra.

**IÑAXI:** Merezi baitu ez delakotz tenorez itzuli.

**ERREMUNDEGI:** Ez duzu, naski, alargun geldi nahi?

**IÑAXI:** Jainkoak nauzan errukarri. Zinak eta minak eta bortz kalapita ikusi behar badituz ere ene senarrarekin izan ditezela. Gaisoa.

**ERREMUNDEGI:** Marixumek ere ekartzen al dizute laister etxerat indar berria. Amatxi izateko gogotan ote zaudentz.

**IÑAXI:** Laisterregi zoazi.

## ZORTZIGARREN AGERRALDIA

*Lehenok, Arantipi ta Batixta*

**ARANTIPI:** (*Agertuaz eta agurtuaz*) Nola zaude Erremundegibehere?

**ERREMUNDEGI:** Nere izena errateko behar da lehenik gosaldtu. Ontsa millesker. Eta zu Arantipi?

**ARANTIPI:** Hori ere egina dugu. (*Eskua estutuaz*) Arras ongi, zuei begiratzaren saratarrek astia saltzen baituzue.

**ERREMUNDEGI:** Eta sorgin errikoek erosten. Sara eta Zugarramurdi: Erri biek elgarren begira daude eta adiskide bizitzeko sortuak dire. Ezta hunela, Batixta? (*Bigak solasean darraite*).

**BATIXTA:** Ba, mugarik ezpalitz.

**IÑAXI:** Zuri mugazainengatik zaizu axola ta ez mugarengatik.

**BATIXTA:** Ezta andrearengatik; ere ez bai dut!

**IÑAXI:** Ezkondu izan bazinauzten fini zenduen kontrabandoa, eta gure etxean ere bake geiago genukean.

**BATIXTA:** To, zure jauna xeede hekietan badabila zer nahuzu?

**IÑAXI:** Bai; oren huntako etxean behar zuen. Goiz erdi. Ahalkegarri baita egun argiz urhats hekietan nehork ikustea. Eta guttiago erri buruzagiek emen direlarik. Gauez ez duzue aski ehia.

**BATIXTA:** Zu, Marixume. Ezkon aitzina antola itzatzu zure maitearekin xehetasun eta goiti beihiti oro. Zer orenetan gibelaraz behar diozun mendirat gatea. Egunez ala gauez dela; ilargi berritan ala betean... Bertzenaz asarretzen ahal zaizte usu.

**MARIXUME:** Ene aitak aizu duana ez diot senargeiari eragotzen al. Ez gerorat ezkonduz geroz ere.

**IÑAXI:** Obe duzu ba bethi mutilzar geldi. Alferretan mintzatzen ari naiz. Noan.

**ARANTIPI:** (*Batixtari urbilduaz*) Andrerik ez duzunez, Batixta, kontuen artzako gu lañoki mintza behar gira elgarrekin. Badakizu zertako.

**BATIXTA:** Orai da zuen txanda? Asi ba.

**ERREMUNDEGI:** Obe litake gehi ortaz bideari lotuz jardukitzea.

**IÑAXI:** (*Marixumerekin etxe barnerat doazelarik*) Uzten zaituegu librokiko rrintzatzen, bai baitugu atxiki aña lan barne ortan. Gauza bat galdetzen dizuet: ethor zaitzela tenorez bazkaritarako eguardi-eguarditan. Ordurako ene jauna ere etxeratua izanen ahal da.

**ARANTIPI:** Hazkurri orenerako denak izanen gira emen prestu-prestu. Baita saratarrek ere.

**ERREMUNDEGI:** Beharrik.

**BATIXTA:** Txerri goseak ezkurra amets.

**IÑAXI:** Bazoazi «muthil zaharra kanporat eta oilo zaharra etxerat». Sarri artio.

**ERREMUNDEGI:** Arantipi... (*Irriz*) Hori, hori.

**BATIXTA:** Zuentako. Nik aski dut salda.

## BEDERATZIGARREN AGERRALDIA

*Arantipi, Erremundegi ta Batixta*

**ARANTIPI:** Errazu, Batixta, orai ere falta dire bazterretan nik ez dakit zenbat zikiro, behor; eta hazienda hekion buruz buru urhats alferrik ez dezagun egin, behar diguzu aitor itzul-inguru guztiak. Naparroko Diputazioeak erri aziendak lerro-lerro agertzeko agindua eman baitigu.

**BATIXTA:** Dakienak daki..

**ERREMUNDEGI:** Jaun prefetak gauza bera manu digu: kadastroen egitea. Eta ez dugu xehetasun garbirik atheratzen ahal zuek abereak batetik bertzera baimenik gabe dabilzkitzuelarik.



**BATIXTA:** Hala da, jaunak. Aurten belar guttisko baita eta azienda berezber larre berrien bila dabil. Zer nauzue, muga guzian ez bait diteke ezarri itxiturik.

**ARANTIPI:** Ba guk azienda ori bahitzeko agindua dugu. Onez onean erraten dizut, bertzenaz...

**BATIXTA:** Ez naiz bakarrik izanen. Nasaiki gire erri bietan mugalariak... muga ohoinak nai baduzue. Agian erriko handi-mandi eta buruzagietarik. Orobarne. Eha baden nehor ez duanik egin kontrabandorik.

**ARANTIPI:** Ezta ori auzia. Zoritzarrik danori gerta ez dakigun ordea, aginduak bete ditzagun.

**ERREMUNDEGI:** Mugazain eta karabineroak urbil dire gainera ta atxeman zinukete. Hobe duzu ikus ez zaitzaten.

**BATIXTA:** Lehenago ikus baititut heik ni baiño. Damurik ez naiz gazte. Haatik aski zalhui naiz oraino eta eskualdun gaskoinen eskuetan ez erortzeko. Naiz egun sei oreneko bidean ibilia banaiz.

**ARANTIPI:** Beha, Batixta. Ez gatozkitzu zelatari bezala, adiskidetik adiskiderat mintzatzerat baizik. Asarretzeke zer nulak antola ditezkeela uste baitugu. Zuri buruz erran-merranak badabil-tza. Guk ez jakin iduri egiten dugu. Ez gire aietaz jabetzen.

**BATIXTA:** Ez nik ere ez ditut sinesten entzundako guziak. Ez ditut ba ordaintzen petxa, zerga eta kontribuzione oro? Bada mandoa lehertzeko aña zama. Hortik landa zer zaie axola mihizorrotxai nundik norat hikiltzen naizen? Nerea da nekea ez bere.

**ERREMUNDEGI:** Eta zureak irabazi osoak. Nola nai den errien kastu eta kargak gaintzen doaz bethi. Gobernamentuak dirua geroz eta geiago galdetzen dauku eta nunbait sortu behar.

**ARANTIPI:** Eta egunetik egunerat gure errietan azienda guttiagotzen, paperean bederen...

**ERREMUNDEGI:** Mugan galtzen baitira.

**BATIXTA:** Jakina artaldeak ez ohi dira paperez bazkatzen eta bai larra janez mendian. Bada anhitz mutil iri handietako bulegotan. Ethon daitezela eremuz-eremu azienda buruen kondatzea. Ikhus nahi nituke mendi pattar gora lehertzen, gure bizkar jaten bizi baitira. Ez da aski muga paperetan ematea.

**ERREMUNDEGI:** Gure Biltzar zaharra balitz nagusi lehen bezala, ez lita-ke hori gertatzen ahal, bainan hura izan zanez geroz ez dezakegu haren zai astia gal.

**BATIXTA:** Ez, ez; ni Mixelen begira nago, or konpon gainerakoak. Eneta-ko puska baliosak bait dakarzki ez nituzke mendi bazte-rran utzi nahi; Mugan geldi behar dut finkatua hekiek eskura ditudeño. Luzeitzirik nago.

**ARANTIPI:** Hala delarik eta lasago egon zaitezten bakarrik uzten zaitugu. Gu Arretxaldeko leporat berma bearrean gira lekuko izate-rat: eta lehenbaitlehen gatea obe. Itzultitakoan ukhanen ahal dugu gogo bezenbat asti elgarrekin mintzatzeko.

**ERREMUNDEGI:** Bagoazi ba orduan.

**ARANTIPI:** (*Batixtari*) Bazkaltzen emen izainen zira naski?

**BATIXTA:** Ez dakit ba. Etxekandreak eskeintzen badit bazkari eta muga-zainak ez badaute gibelarazten ez nuke bertze ostaturik gutizi.

**ERREMUNDEGI:** Aldi batetik zuretako ama jaki izainen da eta... bertzeak ez zaitue izitzen loa eta gosea kentzeraino.

**ARANTIPI:** Huntan malurik gerta ez dakion, bataezpada, on degu bizka-rrerat igotea. Mugazain eta karabineroak andik aizatzen ahal ditugu. Oren baten buruan egina dugu itzulia. (*Gan-jina*) eta bazkal ondoan jarraitzen ahal dugu solasa aspertu ala.

**BATIXTA:** Ederki, ni bizkitartean etxe gibeledko iratze multzuan etziterat noa. Ehia lokartzen nauen. Loa gozo baita logale denean; eta jan edana ez denean ase...

**ERREMUNDEGI:** A zu. Piztien arabera da ori.

**BATIXTA:** Ba, eiki. Zikiroak maite dute eguerdi aitzineko lo kuluxka eta noiz nai bazka lodia. (*Doalarik nagjak ateriaz*) Noan oatze-rat berant gabe. Agur jaunak.

**ARANTIPI:** Sarri artio.

**ERREMUNDEGI:** Gizonaren laxoa.

**ARANTIPI:** Bagoazi. (*Batixta eskuta den lekurat burua itzuliaz eta beha*). Alimale gaitza. Larre gizona. Are geiago: muga-gizona. Ez aute errez atzemaiten karrika aurrek.

ZAPIA



## BIGARREN EKITALDIA

*(Lehen ekitaldiko agerkai bera)*

### LEHEN AGERRALDIA

*Koxejuan eta Marixume*

*(Koxejuan laisterka dator, izerditan hatsa larri;  
Marixume etxe atadian dagolarik).*

**MARIXUME:** Zer duzu ain ertsi eldutzeko? igesi zatoz eta nola; gaisoa. Zerbait gerta zaizue? Nun geldi da aita?

**KOXEJUAN:** Utz zadazu artzen atsa. Ez dauzut galde guziaz, batean, jardesten ahal. Itzulia egin dugu beinik bein... eta zu ikustek bozkariatzen nau.

**MARIXUME:** Baita ni ere, erran gabe doa. Pausa zaite ba Koxejuan eta gero asetzen ahal duzu nere jakin mina.

**KOXEJUAN:** *(Hatsa arturik).* Ehia ezin nintzan mintza. Orai bihurtzen hasi zaut abotsa, Marixume.

**MARIXUME:** Entzuteko kilikan naukazu. Erran, erran. Mugazainak mendi gora ikusi ditudalarik beldur bait nintzan, buruz buru ez ote zenuen eginen.

**KOXEJUAN:** Ixo. *(Etixerat behatuaz).* Ez ditzala zure amak entzun gure abotsak.

**MARIXUME:** Or dabil baratzean baztanarriak atxematen.

**KOXEJUAN:** Bazenakien orduan mugazainak emengo aldi zabiltzala.

**MARIXUME:** Nik ala uste. Badea oren biga gibelesko iratz multsotan lotan, zurrungan dagoala.

**KOXEJUAN:** E? ez da deithogarri? Beitu zazu. Eldua da ordea?

**MARIXUME:** Ba aspaldisko. Or da or. *(Nun dagon erhiaz sinalaturik).*

**KOXEJUAN:** Ba elgarrekin lotu behar dugu berriz mendira. Ark baitaki ondoenik lekuen berri.

**MARIXUME:** Etzinda loak artzeko hauta duena ez da ba obenetarik.

**KOXEJUAN:** Beharra eragille handi.

**MARIXUME:** Noan iratzartzerat... *(Amultsuki begiratuaz).*

**KOXEJUAN:** *(Orobat).* Noiz eltzen ahal da iratzarriko nauzun eguna.

## BIGARREN AGERRALDIA

*Lehengak eta Batixta*

**BATIXTA:** *(Sarturik).* Ez duzue igi beharrik, emen nauzue, zuen arrabotsa nabaitu bait dut eta baita ere ezagun Koxejuanereren boza. Ikusia dago egun ezin lo egin daitekela trankil. Ta zer gerta zaizue jada?

**KOXEJUAN:** Ba deus handirik; goitik gentozelarik karabineroekin behaztopo egin dugula; behitik lotu gira ta mugazainekin berritz. Ehia zarra gaituzte ederki. Eskerrak barreiatu girala mandoak alde batetik, gu bertzetik. Eta puskak an nunbeit...

**BATIXTA:** Ai, ai, ai. Eta Mixel bakarrik utzita eldu zira? Eta aren alaba nahi duzu andretzat? Marixume, ez dauzu ohore handirik biur-tzen.

**MARIXUME:** Zurea da obena, bera laguntza bila etorri zaigu, egin ahale-tan eta biok gan bear duzue gure aita mugazainen eskuetan eror ez dedin. Ahalkegarri litake.

**KOXEJUAN:** Ni eldu naiz ez lotsaz igesi, baizik zu gaztigatzerat. Egun batez behar eta...

**BATIXTA:** Ahalkegarri ezik kaltegarri litake. Mixel ez dute mugazainek atxemanen, bai zera! Badaki nundik ibil, eta haren laguntzera gaten ahal gira errezki. Bainan puskak galdu balin badituzue bertzerik da.

**MARIXUME:** Hori da. Puskak maitezenago dituzue presunak baino. Ea irurok atzemaiten zaituzten.

**BATIXTA:** Ez ukhan ardura, Marixume, zure maitea, aita ta ni orok osorik itzultzen ahal gire. Mugazainak ere geiago maite baitituzte puska baliosak gu baino, eta naski haiei jarraitzen. Bago-azi lako *(Koxejuaneri).* Zer aldetarat jo du?

**KOXEJUAN:** Arretxilako erreka behitik an izainen da sasipean.

**BATIXTA:** Ez da urrun, laister emen dire. Hortzez ala aginez.

**MARIXUME:** A, gaisoa. Emen geldituak baitire arno xorta bat edaten. Bainan ez dauzu errepikatzen nola eldu ziran bakar bakarra. Nun utzia duzun aita.



**KOXEJUAN:** Ba karabineroekin behaztopo egin dugu usategietako oianerat eldu girelarik. Io dugu errekarat, eta no, an berritz mugazainak zaizkigu ageri. Bakoitza bere aldetik sakabanutu gira, puskak galdurik, soka ausiaz; eta azkenik ez dakit nere lagunak noruntz artu duten. Zure aita sasipe batean gorde dela uste dut. Ni gibelxeagon geldi naiz pusken gordetzen eta karabineroak urbildu direlarik laisterka abitu naiz, kurri. Eta nere zango arinai esker emen nauzu finki.

**MARIXUME:** Zer irriskueta ematen zaituen zuen balentriak. Gure aita ez dago hunela ibiltzeko adinean. Hobe duzue utzi muga erra-goiti jadura-behitia. Bertzenaz egun batean presondegirat eramaten al zaitue.

**KOXEJUAN:** Ez da errez gu atxematen salatarien bat ez badugu barne. Egun ere mugazain eta karabinero, bietarik gure begira; sareak eda eta guk ega halaz guziaz.

**MARIXUME:** Lumak utzirik guzia berant zabilatzelakotz.

**KOXEJUAN:** Egia diozu: eguna artitzeko behar ginuen etxean, baina Espainiako txabola batean, Batixtaren mutil bati lau oren begira egonak gaituzu eta ark nahasi bidaia.

**MARIXUME:** Ezkon gaitenezan ez dauzute utziko hunela kurritzen, tiroren batek ez zaitzan gal.

**KOXEJUAN:** Ez, orduan zure baitan egoten al naiz beti, zuk arthatuko nauzu eta nik zu maiteko.

**MARIXUME:** (*Eztiki*). Orain erraten duzu ori, esposatuz geroz ordea gizon guziek lehen lepotik burua. Emazteki gaisoak etxean pairamenak jasaiten.

**KOXEJUAN:** Eta ni laguntzen ahal bezenbat. Haatik uste dut muga barnerat etxerako pusken ekartzea utziko nauzula. Nola lakhet bertzenaz... Gainera zer nahi gauza emen eros ala Nafarroan badago aldea: anitz sosen irabazia. Inoiz eskeintzen dauzute jantzi baten egiteko ohial ederra, setazko txingol, galtzerdi, oinetako, arno goxoetarik eta bertze...

**MARIXUME:** Horrek pozkariatzen nau, baina bertzalde zenbat hertsura ta lotsa. Badirudi aristiko istripua ahantzi zaizuala eta gure aita doakabea sasipean apal-apal gaisoa.

**KOXEJUAN:** Hori ez da deusik ere. Pausan dago eta laister laguntzen ahal dugu handik ateratzen.

**MARIXUME:** Amak ukhanen du atsekabea jakitean.

**KOXEJUAN:** Ez bait zaio erran behar; aski da guk jakitea ta Batixta gure aintzindariak. Hau eldu dadinean eta urbilxea othe denz nago...

## IRUGARREN AGERRALDIA

*Lehenagok eta Iñaxi.*

**IÑAXI:** (*Iziturik*) Norat zoazi? Zu emen Koxejuan, nun da Mixel? Zer da hau.

**KOXEJUAN:** Elduki andre, Mixel ere bidean da ta orain goazkio bila.

**IÑAXI:** Ba, au ez da hunela ibiltzeko sasoina, ea eguardi. Bide guziak mugazainez beterik daudela, auzapez eta bertze aintzindariak inguru hekietan begira dabiltzalarik.

**BATIXTA:** Ez arrenkura, zure jaunak orduan eta obeki baidaki bide ta bidexkak iragaiten, ortakotz da mugatari.

**IÑAXI:** Nun othe gaisoa?

**KOXEJUAN:** Urbil osoki, pusken zaintzen; eta mugazainak mendi masal onetan daudeño bertzaldera laguntzerat gan behar gatzaio lehenbai-lehen guzia etxeratzeko.

**IÑAXI:** Ez bazenuten astirik bidean gal aspaldian behar zenuten emen. Deus egiteko gogoak kendu dauzkidazue.

**BATIXTA:** Egon lorietan, Iñaxi; eman or bazkari maniatzen, goserik itzultzen al gira Mixel eta puskak barne. Laister gainera.

Ez du balio linburtzeak. (*Gogopeta eginez*). To, asmo bat, hoberenetarik burura zaut. Marixume, aitaren zizpa etxean ikhanen duzue naski?

**MARIXUME:** Ba, or da nunbeit, supazterean zintzilika.

**BATIXTA:** Ekhar zadazu othoi. Enia fite (*Gaisoa*).

**MARIXUME:** Banoazu bila (*Doalarik*).

**IÑAXI:** Zertako duzu zizpa ordea? Ixtripu baten emateko? Obe duzu esku utsik gan. Irrisku guttiago, arma lagun txarra mugarako.

**BATIXTA:** Ez andre, bataezpada erbiren batek jausi egiten badauku on da zizpa eskuan eramatea.

**KOXEJUAN:** Eizariak ba baitu beti herra. Ezagun da usategietako abatari zerala. Egun ahantzi behar dituzu uso ta sareak. Ez dago ego aizerik. Bertze piztiak dabilta mendian.



**IÑAXI:** Gure etxeko bildotx otxana atxeman nahiz. Gaiso Mixel.

**BATIXTA:** (*Marixume eltzen dela oarturik*). Orai ikusten ahal duzue iztari ona dela kontrabandista oberenik; uso abataria mugazain izitzaile azkarrenik. (*Marixumerengaga ganez*). Emazu, eman zizpa ori.

**MARIXUME:** Torizu, baita kartuxak ere. Ez dakit zertako baino.

**BATIXTA:** (*Zizpa kartuxak eskuan arturik kartuxa bat atxikiatz kanoinean sartu beza*). Milesker. Kasu orai. Ez izitu. Tiroa botatzerat noa (*Ohian alderat abiatuaz*). Ixo. Entzun.

**IÑAXI:** Zertako oinbat espantu? Zer egiterat zoazi? Galduak gira.

**MARIXUME:** Erotu zaigu. Ai ama. (*Eskuez begitartea estaliatz*).

**KOXEJUAN:** Batixta. Gizona joku txarra da ori. Zaude geldi (*Geiago gabe Batixtak «su» egin du ta extanda entzun bedi*) pu-u-u-m. (*Batean emaztekiek karrasi, ohiu egiten dute eta iziturik biltzen dire elkarrenganat. Gero unetxo batean gizia ixil*).

**BATIXTA:** (*Itzuliaz*). Ez beldurtu, ez da deus. Orai itxoin mendirat begira, zakurrak agertzen othe diren.

**KOXEJUAN:** Bainan zer burutapenak har zaitu? Ez dut fitsik konprenitzen.

**BATIXTA:** A gazte xalo ta xumea. Ez duzu ikasi oraino zure lagintzaren arabera. Ez dakizu aski dela leku batean harrabotsa ateratzea bertarat mugazai guziak eldu daitezen? Hunela bertze denak libro dire zernahitarako. Artalde osoa iragaiteko ere.

**KOXEJUAN:** Zer bitxikeria.

**IÑAXI:** Gaizki gaude orduan emen.

**BATIXTA:** Tenorez ezkututzen ahal gira, guardak eldu baino lehen.

**IÑAXI:** Antsia badut barnen sartua, nere jauna tiroa entzunaz iziturik hilkitzen othe dez eta atxemainen dutela. Otxana baita.

**BATIXTA:** Mixel ez da erbi ta bai azeri; badaki noiz zilotik hilki. Ehia Marixume, zoazi bide birhunda ortarat, norbeit nabaitzen duzun kasu egiterat (*Gaiztoz*). Beldurtzen bazera Koxejuanek lagun zaitzala.

**MARIXUME:** Ez naiz beldurtzen, banoake bakarrik ere. Agian laister zuek izanen duzue laguntz beharra iges egiteko.

**KOXEJUAN:** Gero ez dakit, bainan, orai laguntzako eskua ez al dauzu ukhatzen. Apur batto bederen. (*Ertzerano doaz bigak*).

**IÑAXI:** Ez ordea astirik gal elheketan. Begira bethi aitzina, gaineke bide hortarat.

**MARIXUME:** Bai, ama. «Txoko bia» ageri da garbiki.

**BATIXTA:** Utz zaiezu gaisoai atsegin poxi bat ar dezaten. Ezpaitira nahi bezenbat elgarrekin egoten.

**IÑAXI:** Ezkonduz geroz izanen dute astia maite minetan aspertzeko. Orai bertze aieruak lehendatzen du gure izangunea. Horrat jo behar dugu mugazainak etortzen direlarik? Zuk erran.

**BATIXTA:** Zuen urhatsa jakina da: emaztekiak etxe barnerat bazkari maniatzera eta gu or nunbeit errefelaria antzo, pilota hundi datorren begira.

**IÑAXI:** Joku txarra «kintzea» irabazteko.

**BATIXTA:** Atxikitzen al dugu, muga gure baita. Bertzeak esperantza. (*Marixume ta Koxejuan elduki*).

**MARIXUME:** Gaineke bidetik jende andana ibilki. Urbil dire.

**KOXEJUAN:** Mugazainak dire. Ez zeuden urrun eta tirotsa entzunez laisterka alde huritatat datoz. Instantean ditugu emen.

**IÑAXI:** (*Iziturik*) Eia egiten daukuten «pik». Erraten nizun, Batixta, galduak ginela. Egun ez bazkari eta ez afari; ta ez banaiz gelditzen alargun. Ondamenaren handia; zuen liskarrak zertarat ekarri gaitun. Jautsapenik izan bazenuen. Ainhoako Arantza Andre dena Maria Birgina sailduak urrikal nazala. Aren kaperat bilutsik beilan gaten natzaiola agintzen baitut, eta zuek lekuko ontarik onik ateratzen bagaitu.

**BATIXTA:** Guttiagorekin ere Arantzetako Ama Birginak laguntzen ahal zaitu. Hura ere mugatiarra baita. Badu gure berri. Bataezpada ordea sar zaitezte etxean ama-alabak.

**IÑAXI:** Ene Jainkoa. Zato Marixume. Ez nigandik urrundu.

**MARIXUME:** Goazen, ama. Emen nauzu, ez hunela lotsa. Zaude lañoki. Ez dirudizu mugan sortua (*Etxerat sarturik*).

**KOXEJUAN:** Egon lasai. Zer da ba hau? Zerbait galdegiten badautzue ez iardetsi; ez mintza geiegi. Ez da deus ere, tiroak izatu du.

**BATIXTA:** Ark uxatuko ditu alaber mugazainak. Koxejuan, jo or eskubitik aitzina. Gero biltzen ahal gira berritz.

**KOXEJUAN:** Nik ala uste, ez baita sortu erren mugan atxemaiten gaituen arrotzik (*Bioaz*).

## LAUGARREN AGERRALDIA

*Mugazain eta Karabineroak*



(*Agertokia une batean nehor gabe. Bat batean espantuka karabini-  
nero eta mugazainak elduki*).

- I KARABINEROA:** Por aquí ha sido el tiro (*Basterrak ikertuaz*). Ah, puñeta. Si hubiera sido por el lado de España nos lo iban a pagar (*Karabiniro bigarrenari*). Diselo a esos franxutes, para que lo sepan.
- II KARABINEROA:** (*Prantzera mordoiloiz*). «Ici on tiré le tiro». En France, non en Espagne. Pas nous; c'est à vous de continuer le chemin. Nous, nous arrêter ici. Alto.
- II MUGAZAINA:** Ça ne nous regarde pas. A mon avis au contraire, la détonation est venue clairement de l'autre côté de la frontière. Bref: du territoire espagnol. C'est votre juridiction, entendez? Alors...
- II KARABINEROA:** Vous parlez... e, très «serré». Je ne comprends pas.
- II MUGAZAINA:** Moi, je parle français, voilà tout. (*Mugazain lagunari*) Explique-lui en espagnol.
- I MUGAZAINA:** (*Karabiniroari*). «Oiga tienes mala oreja». El tiro haber venido de allá. Y los chicos «pasia» Zugarramurdi «espacar» han hecho...
- I KARABINEROA:** Me lo va usted a decir a mí que soy el que de más cerca lo he oído y llevo treinta años de servicio en el cuerpo...
- I MUGAZAINA:** Tu cuerpo? y yo «más mejor *belarri*».
- II KARABINEROA:** (*Lagunari*). Con este «vascunce» es inútil discutir. Y nosotros no nos movemos de aquí porque a ellos corresponde el servicio en esta zona en la que se han refugiado los «delizcuentes». Nada más.
- II MUGAZAINA:** (*Lagunari*) Qu'est-ce qu'il débite, lui?
- I MUGAZAINA:** Rien du tout. Il dit à peu près que c'est à nous de faire le service, parce que c'est de ce côté que se sont enfuis les types. Ils veulent rester ici à manger à leur faim, voilà tout.
- II MUGAZAINA:** Mais s'ils n'ont rien à faire, qu'ils s'en aillent du côté espagnol où malgré leurs dires a retenti le coup.
- I MUGAZAINA:** Si aquí no estar vuestro «*leku*» porque no vais al otro lao de la muga?
- I KARABINEROA:** (*Asarre*) Esa es la educación francesa. A mí no me da lecciones ningún gendarme. Valientes gabachos. (*Lagunari*) Diselo así clarito, al otro que es el jefe, y vámonos de aquí cuanto antes.

- II KARABINEROA:** (*Damurik*) Lastima de tiro. Si estos gendarmes llevasen fusil como nosotros ya habíamos tumbado a media docena de contrabandistas. Pero como no tienen miedo de que les disparen, los muy pillos van aumentando de día en día.
- I KARABINEROA:** Déjate de lamentos y al grano, Gutierrez, para que lo entiendan estos.
- II KARABINEROA:** A eso voy. (*Mugazainari*) «E vous, gendarmes. Nous savoir mieux que vous notre obligation et nous irons quand viendra la "gaine"».
- II MUGAZAINA:** Tiens, voilà de jolis mots. Enfin, on a compris quand même. Bien sûr, vous irez quand vous voudrez et où il vous plaira. Je n'ai rien à y voir... Mais, avec ces discussions entre autorités, les contrebandiers ont eu le temps de fixer le camp.
- I KARABINEROA:** Basta de «xapurraeos». Que hable en cristiano. Ya dará cuenta al comandante del puesto de la novedad ocurrida. Diles que nos vamos Gutierrez. Nosotros no somos como los franceses.
- I MUGAZAINA:** Por nosotros ya «poder» marchar a tu tierra.
- I KARABINEROA:** (*Zakar*) Rediez. A usted nadie se lo pregunta. (*Lagunari*) En marcha.
- II KARABINEROA:** A la orden mi jefe. (*Gogp tzarrez eta berez-ber*). Maldita sea. Con lo bien que nos hubiera caído aquí el «amaiketa-ko».
- I KARABINEROA:** (*Abituaz*) Buenos días.
- II KARABINEROA:** (*Gibeletik*) Nous suivons notre chemin à Zugarramurdi. Au revoir messieurs.
- II MUGAZAINA:** Bonjour messieurs. Nous allons suivre le nôtre pour alerter au poste de la douane tous les hommes en service. Allons Elissamburu. Il faut se dépêcher.
- I MUGAZAINA:** (*Uzkur egiaz*) Mais si tôt que ça?
- II MUGAZAINA:** Mais bien sûr, tout de suite.
- I MUGAZAINA:** Est-ce que nous n'allons pas attendre, Monsieur le Maire?
- II MUGAZAINA:** Pourquoi faire? Ce qui est le plus urgent est de descendre sans nous attarder afin de poursuivre les coquins. En marche donc!
- I MUGAZAINA:** Ça oui... (*Berez-ber*). Salda artu gabe gatea ere. Allons.
- II MUGAZAINA:** (*Abituaz*) On est fatigué d'être toujours les dupes, on est rassasié.



**I MUGAZAINA:** (*Berez-ber*) Pas moi. Goseak kilikatzen bait daut barnea.

**II MUGAZAINA:** Cette fois on les attrapera. Nous les aurons. En avant.  
(*Doalarik eta gibelxeago mugazaina*).

**I MUGAZAINA:** Alferretan. «Usoak ioan, sareak eda». Mugan beti kontra-  
banda izanen baita hariztegian konduak bezenbat (*Doa*).

## BORTZEGARREN AGERRALDIA

### *Arantipi eta Erremundegi*

**ARANTIPI:** (*Elduki eta bazterren beha*). Ezta nihor emen. Mugazainak nun-  
beit aintzinat jarraiki dute eta etxetiarrak ere ez dira ageri.

**ERREMUNDEGI:** Tiroa inguru auetan zen ba. Eginen nuke apustu ixtripu  
ortan ez zela Batixta urrun izainen. Nulanai haren mutilen  
egitea da guzia. Bizkitartean gu gaizki gelditzen gira gen-  
darmerian begietan. Batixta hori.

**ARANTIPI:** Zer nauzu, gure erri bietako mutilek ogi-bide ori beharra bai  
dute. Gaizok irabazi sosak gauez, mendiz irrisiko ta neke  
gaitzetan ibilki ongi irabazitakoak direla errango nuke.

**ERREMUNDEGI:** Ez zaite, othoi, hekien alde mintza zeren hertzitasun  
ederretan ezartzen gaituzte. Eta maisko hortaz so eginaz  
ene bahitarako diot, eia hunela gobernamentuari ebasten  
utziaz ez othe giran geraur ere obendun. Salatzeko gogoa  
ematen daut batzuetan.

**ARANTIPI:** Hori sekulan ez gizona. Zaude kezkiak gabe. Meza nagusirat  
gatez guttitan uts egin dut berrogei urte auetan eta ez dut  
egundaino entzun kontrabandoaren kontra mintzatzan eta  
bai salatariari buruz. Nik uste mendietarik barne pusken  
iragaiten bethi dela haizu. Gure arbaso xaarrek hori bera  
uste izan zuen Axularrek erakutsi arabera eta hura saindua  
omen.

**ERREMUNDEGI:** Saindua baleike, mugakoa ordea: urdazubiarra. Eta nik  
uste muga-zergak manatu dituzten geroz zerbeitetakotz  
direla.

**ARANTIPI:** Jakina. Kontrabandoa izan dadin, bertzenaz ezina bait litake.  
Eta zer egin behar lukete gure mutilak kontrabando gabe?

**ERREMUNDEGI:** Ez dauzut ukho eginen, bainan, haatik, Batixta hori  
geiegizkoa da. Haren kariaz goiza galdu dugu eta herrirat  
itzul beharko fitsik emenda gabe.

**ARANTIPI:** Lagun zaarra. Badugu astia oraino. Lehen egin zagun bazkari  
eta gero antolatzen ahal dituzu gainerakoak.

**ERREMUNDEGI:** Bethi «geroko-gero». Saratarra dirudizu.

**ARANTIPI:** Ez ba ainoarra. Altzak ez du biotzik, ez gaztanberak ezurrik.  
Zure ez zira ba saratarra. Saran ez baita saratarrik.

**ERREMUNDEGI:** Hunela da. Etxalarren sortua nauzu.

**ARANTIPI:** Denok mugatiar, orok bat: eskualdun.

**ERREMUNDEGI:** Eta zuk muga-herrietako lehen aintzindari izateko  
baduzu larruak atxiki ainbat malizi.

**ARANTIPI:** Zer nauzu zerbeit behar, munduan ez baita aski justizi. Eta  
sinetsi nazazu: uste dut mugatiarrak ez girela «kontreban-  
distak» baizik erderaz deitzen dena: «librokanbistak».

**ERREMUNDEGI:** (*Adar jotzen*) Errazu Arantipi, Zugarramurdin akereak ze  
aldetarat dituzte adarrak?

## SEIGARREN AGERRALDIA

### *Lehengok eta Iñaxi*

**IÑAXI:** Leiotik zuek agertzen ikhus zaituztedanean ez naiz asarre. Ai, hau  
ezta bizitzea. Karabinero, guarda, gendarme, mugazainak  
emen eta asperenka ene jauna ez dela ageri.

**ARANTIPI:** Zaude lañoki hekiek gan ta gu gelditzen bait gira? Senarra ere  
ez duzu urrun.

**ERREMUNDEGI:** Emen gaituzu berritz ere etxekandre.

**IÑAXI:** Beldur nintzen gure Mixel guardak mendian bahituta presondegi-  
rat eraman ez othe zuten.

**ARANTIPI:** Badakizu Iñaxi ez ginuela gure adiskidetak bat uzten ahal  
orrela eraman zezaten. Bertzalde guarda zozoak, ez dauka-  
te atxemanik. Guziek behitik bota dire; segur Mixel goitik  
dela.

**IÑAXI:** A zer nolako goiza hari naizen jasaiten. Ez daute etxeko lanak ez  
bazkari prestatzen utzi.

**ERREMUNDEGI:** Batixta ere alde egina duzu? Ez dugu ikhusten.



**ARANTIPI:** Ez berririk jakiten... nunbeit galdu dire?

**IÑAXI:** Gizon guziak ene jaunaren bila abiatuak bai dituzu, emaztekiak bakarrik utzirik.

**ARANTIPI:** Lagunak arhatzen dute bai zure senarra. Ez da galtzen ahal.

**IÑAXI:** Maitego nuke ez balitz tratu horietan jardukitzen. Gauez eta edozein eguraldiez goaki osasuna bederen ondutzen ahal du, eta hunekin ontasuna; eta badakigu huntarik urrixko dela laborari etxe tristean. Nehor gutti aberasten baita eremuak lantzen.

**ARANTIPI:** Ortakotz mugari etxeak behar bertze mozkinak. Uste dut arno nafarra ta bar guttitan falta dirala emen. Ez da ala?

**IÑAXI:** Zu bethi jostalari Arantipi jauna.

**ARANTIPI:** Ba, atsekabetzeak ez badu balio. Obe da eginbide latzgarrienak ere irriz artzea.

**ERREMUNDEGI:** Nigarretan ez badugu amaitzen eguna. Eia tiroak ez daukun ekartzen auzia. Karabinero eta gendarmek badute asarre bizian jazartzeko estakurua.

**IÑAXI:** Haren naiz beldur jaun auzapeza. Egungo ibiliai zer ondorio izainen duen. Gure etxea ez othe duten salatuko.

**ARANTIPI:** Ez gaude ba zuek laguntzeko? Ez gogoeta ilunik egin horri buruz. Etxe huntarat egun urbil daitezenak sumatuko dutena da sukaldetik usain gozoa dariola. Hunek salatzen du bazkari ona. Usainak ez du tronpatzen ahal ez mugan ez nehun.

**IÑAXI:** Zuk umorea ezik sudur ona bethi.

**ERREMUNDEGI:** Luzea bai beintzat jan gutizia bezenbat.

**ARANTIPI:** Hortarat ez daukute bertze eskualdeak, irabazten.

**IÑAXI:** Egun janaria ez da ba urri gure etxean. Badugu: oiloa eltzean, aha-teak saltzan, antzara gerrenean eta aretxe lexak erreki.

**ERREMUNDEGI:** (*espantuka*) O, la-la. Bada zerbeit. Hori guzia janez geroz ilabete osoan mehe egiten ahal dugu.

**IÑAXI:** Mehe? Ez uste, amorraitarik ere galdetuak nituen zuei jastarazteko bainan ez ditut atxeman izan ahal, damurik.

**ARANTIPI:** Alabainan Iñaxi, anpatu ala leherraraz nahi gaituzu? Otoruntza gaitza da ori. Geiegia gaisoa.

**IÑAXI:** Aintzindariak ezik karabinero, mugazain eta laguntzale oro bazkartzeko ainbat janari bildu dut or.

**ARANTIPI:** Ez lukete utziren ezurrik, karabineroak bederen.

**IÑAXI:** Ez aipa neri orlakorik. Ez ditut emen ikhus nahi. Etxetiarrekin ere aski dugu gure bazkaria irentsitzeko (*Iresteko*).

**ARANTIPI:** Egiazki menditik gosetuxek eltzen ahal diro: «bidea gose».

**IÑAXI:** Noan bataezpada nere elteak begiratzera. Irakin soinua bada supazterrean. Egun ez bai daute lanean uzten. Nabilan barnerat.

**ERREMUNDEGI:** Ez zaite igi. (*Mendi alderat behatuz*) Uste dut muga gizonak emen ditugula. Bai, berak dire. Ikhus.

**IÑAXI:** Aspaldi zuten etxeratzeko sasoina gu hunela zalantzan atxiki iduki gabe.

**ARANTIPI:** Hobe da berant beinere baino. Emen ditugu ba eta zure jauna aintzinatik. (*Oiuka*) Biba zu Mixel.

## ZAZPIGARREN AGERRALDIA

*Lehengak eta Mixel, Batixta,*

*Koxejuan puskak dakarzukiela.*

*Gero Marixume*

**MIXEL:** (*Elduki*) Bizi naiz, ba, Jainkoari esker. Egun on,

**BATIXTA:** Emen gira berritz, Iñaxi.

**KOXEJUAN:** Eta mugazainak «zegadan» jautsi araz ditugu.

**ERREMUNDEGI:** Kasu oraino, buruzagiak emen bait gira, eta ez da on sobera arrokeri agertzea.

**IÑAXI:** Ez da hau etxeratzeko tenorea; eta bizkitartean jasan ditugunak.

**MIXEL:** To. Ederra duk historia. Ni ertsu ibil eta zuk jasan. Utzi zazu errita xaramel hori ta uste dut goiz tzarra ahantzteko bazkari on bat emendatua izanen duzula. Unatua nago ta are geiago gosetua. Eia ba Iñaxi.

**IÑAXI:** Zuen gose egarriak asetzeko bakarrik gira on emaztekiak.

**MIXEL:** Eta mokoka egiteko ez? (*Senar emazteak elheketan darraite*).

**ARANTIPI:** Zer ba, gizonak etxe barnean astintzen gaituen norbeit behar dugu, bertzenaz oker bidetik lotzen ahal ginake usu. Ez da hala Batixta?

**BATIXTA:** Ez dakit; erritik maite ez duena ez dadila ezkondu. Hunela libro naiz, ez dut baimenik galda beharrik... mugazain alueri





ezik. Nagon ba mutiltzahar. Geienaz ere andregai «Muga» izainen.

**MIXEL:** Egun bai; erran gabe doa. Itsuski ibiliak gira ta Mixel puska guzieki ez dutenean mugazainek atxeman, ez naiz asarre. «Atxuriko gibelean...»

*(Gerthakaria entzutera Erremendegi eta Arantipi Mixelen ingurua urbiltzen dire).*

**KOXEJUAN:** *(Bertze bazterrean Marixumerekin mintzatzen).* Entzun duzu ezkontzari buruz erraten ari direnak?

**MARIXUME:** Horrelako maite solasentzat bethi dago belarria eme.

**KOXEJUAN:** Damutzeko sasoinen zaude oraino.

**MARIXUME:** Eta zu? ezartzen ahal duzu piko ori sakelean.

**KOXEJUAN:** Ez da ondua. Itz eman dauzute eta ez dut nahi bertze maite-rik zu baizik. Eskual-Herri orotan ez bait duzu parerik.

**MARIXUME:** Ni ere izainen naiz zure; bainan ezkonduz geroz ez nuke nahi mugaz bertzalierat ibil zaitean.

**KOXEJUAN:** Orduan mugazainen batekin ezkondu beharko duzu. Nor dituzu maiteago karabineroak anala mugazainak.

**MARIXUME:** Biek orobat, kapitainak izanez geroz. *(Maite elgarritzetan zimikoka diardute).*

**IÑAXI:** *(Senarrari bethi erritan)* Etxean bada zuretzako lan «mugaketan» ari gabe.

**MIXEL:** *(Etsirik)* Ematen dauzute amore. Ba, ba, arrazoin duzu. Etxekandreak azken itza bere...

**BATIXTA:** Galdu aiz Mixel. Andrea isiltzeko erakuts aizkiok saku barnean ditukan puska baliosak.

**MIXEL:** Egun ez gaituk esku-huts ethor, ez. *(Sakua altxatuaz)* Badik pisua.

**IÑAXI:** Ez duzue presa handirik ustutzeko. Eia ikhus?...

**ARANTIPI:** Guri, buruzagiai zor diguzuten itzalagatik, othoi, ez emen kontrabandoa azaltzen asi.

**ERREMUNDEGI:** Kontrabandoa eta sorginak eguzkiaren etsai dira.

**ARANTIPI:** Gure erriarengatik badiozu banago Saran ere ez duzutela gauez argia geiago maite. Gau txoriak, ezagutuak izan ez daitezen ez baitiote ilunduz geroz elgarri agur egiten.

**IÑAXI:** Sar ezazu saku ori barnerat, Mixel, eta egin zagan bazkari.

**BATIXTA:** Hori guziok dugu onesten.

**ARANTIPI:** *(Mixeli)* Bazenaki zer jaki lerroa den supazterrean... *(Zerbeit belarrirat erranez).* Antzara gerrenean.

**MIXEL:** Ez aipa laisterregi, bertzenaz lardea darit kokotzaz behera...

**IÑAXI:** Marixume, emazu eltzekaria mai-gainerat eta hurbil or kadirak.

**MARIXUME:** Bai ama, banoa instantean.

**KOXEJUAN:** Nik aita laguntzen ahal dut sakua eramaten *(Sakua atxiki nahiz).*

**MIXEL:** Utzi, utzi, oraino azkana bait nago pisuen eramaiteko.

**KOXEJUAN:** Bai, baino ez dira alferretan gal behar indarrak. *(Ama alaba lehenik sartzen dire; gero Koxejuan eta Mixel sakua bien artean eramanez. Ondoan, Arantipi, doazela galdegiten jarraiki).*

**ARANTIPI:** Hala da, gazteak egin dezala lan. Zure solasa entzun nahi dut Mixel, nola ibiliak zaizten mendi-gibel hortan.

**MIXEL:** *(Atetik begitartea itzuliaz)* Nere gibelean izan dut aski min, zilipurdiz, zangoz gora, erori naizelarik. *(Doa).* Arantipi. *(Sartzen da irri karkara eginez)* Ja, ja, ja...

**ERREMUNDEGI:** *(Batixtarekin bakarrik gelditu dela oarturik)* Ekarri dauzu Habanako tabako laurdena?

**BATIXTA:** Baita biga ere. Ez zautut ahantzi. Huna emen. *(Puska bi tabako emanaz).*

**ERREMUNDEGI:** Zenbat da? *(Sakeletik sasak atheratuaz)* Milesker.

**BATIXTA:** Bethi bezala.

**ARANTIPI:** *(Berritz atean agertuaz)* Zer, isil traturen bat bai duzue?

**BATIXTA:** Tabako poxi bat.

**ARANTIPI:** Larriena. Mugazain legeen arabera.

**BATIXTA:** Guretzako arina. *(Xeenik).*

**ERREMUNDEGI:** Kheetan doan gaia ez dakit zertako den kontrebando. *(Eskeiniaz)* Erre zazu zuk ere.

**ARANTIPI:** Bai gogotik adiskide maitea, ni banaiz Adan zu zira Eba. Erre zagan bainan ez gure aditzailei azkenagurra erran gabe:

Yosteta hunek poz bazaitue  
Aize-egoak Negu bezala  
Gogoan artu Mugan gainetik  
Bigak elduki direla...  
Orai txalo bat galda dizugu  
Lanaren sariztatzeko  
Aski zaigu zure eskerrona  
Gure bihotza berotzeko:



Agur jaun andriak  
Zuetarik du ohore  
ESKUAL-HERRIAK.

AMAIA

Sara. Prefetenea.